



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

HEZKUNTZA
ETA KIROL
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN
Y DEPORTE

PRACTICUM I, II eta III-aren GIDA

**LEHEN HEZKUNTZAKO
eta
HAUR HEZKUNTZAKO
GRADUAK**



Practicum eta GRAL Azpibatzerdeak berrikusia eta onartua 2024ko
abenduaren 10eko bileran

AURKIBIDEA

1. SARRERA.....	2
2. PRACTICUMAREN ARAUDI OROKORRA.....	2
3. PROZESUAN PARTE HARTZEN DUTEN ERAGILEAK ETA BAKOITZAREN EGITEKOAK	4
3.1. Hezkuntza eta Kirol Fakultatea	4
3.2. Hezkuntza eta Kirol Fakultateko tutorea	5
3.3. Haur Hezkuntzako edo Lehen Hezkuntzako ikastetxea	6
3.4. Haur Hezkuntzako edo Lehen Hezkuntzako ikastetxeko tutorea	6
3.5. Practicumeko ikasleak.....	7
4. PLAZEN ESLEIPENA.....	8
4.1. Ikasleak ikastetxea eta plaza aukeratzea: PRACTICUMA I.8	
4.2. Ikasleak ikastegia eta plaza aukeratzea: PRACTICUMA II eta PRACTICUMA III	8
5. PRAKTIKEN PLANA.....	9
5.1. Practicuma I.....	9
5.2. Practicuma II	11
5.3. Practicuma III.....	13
6. MEMORIA.....	14
6.1. Memoriaren atalak	15
6.2. Memoriaren formatua	16
6.3. Memoriaren luzera	16
6.4. Memoria gainditzeko ezinbesteko baldintzak	16
6.5. Memoriaren entrega	17
7. EBALUAZIOA.....	17
8. BALIOZKOTZEAK - AITORPENAK	19

1. SARRERA

Dokumentu honetan Hezkuntza eta Kirol Fakultateak, Praktiken Dekanotzaren eta Practicum eta GRAL Batzordearen bitartez, baldintzak finkatzen ditu Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako graduen Practicuma I, Practicuma II eta Practicuma III irakasgaiak egiteko, kontuan hartuta 33/2018 DEKRETUA, martxoaren 6koa, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxeetan irakasle izateko gaitzen duten unibertsitate-ikasketen practicumari eta titulazioa dela-eta masterreko ikasketak egin ezin dituzten pertsonentzako prestakuntza baliokidearen practicumari buruzkoa.

2. PRACTICUMAREN ARAUDI OROKORRA

HAUR HEZKUNTZAKO GRADUA			
PRACTICUMA I	8 ECTS kreditu = 150 ordu (5 aste – 30 h/astea)	Iraila-urria	2. maila
PRACTICUMA II	12 ECTS kreditu = 210 ordu (7 aste – 30 h/astea)	Azaroa-abendua	3. maila
PRACTICUMA III	18 ECTS kreditu = 300 ordu (10 aste – 30 h/astea)	Urtarrila-martxoa	4. maila

LEHEN HEZKUNTZAKO GRADUA			
PRACTICUMA I	9 ECTS kreditu = 150 ordu (5 aste – 30 h/astea)	Iraila-urria	2. maila
PRACTICUM II	11 ECTS kreditu = 210 ordu (7 aste – 30 h/astea)	Azaroa-abendua	3. maila
PRACTICUMA III	18 ECTS kreditu = 300 ordu (10 aste – 30 h/astea)	Urtarrila-martxoa	4. maila

- Practicuma enborreko eta nahitaezko irakasgai bat da, irakaskuntza arautuko ikastetxe batean (publikoan zein itunpekoan) egiten dena, goizez eta arratsalde. Practicuma Haur Hezkuntzan edo Lehen Hezkuntzan egin behar da, sekula ere ez DBHn.
- **Ikasleek hiru practicumak egin behar dituzte, gutxienez bi ikastetxetan, eta Haur Hezkuntzako bi zikloetan eta Lehen Hezkuntzako bi ziklotan. Ikasleen ardura izango da bi baldintza horiek betetzea.** Practicuma III egin ondoren, batzordeak egiaztatuko balu

ikasleak ez dituela baldintza horiek bete, ikasleak AURKEZTEKE kalifikazioa izango du Practicum III irakasgaian.

- Haur Hezkuntzako goi mailako teknikari titulua dutenek (Goi Mailako Lanbide Heziketa) Haur Hezkuntzako bigarren zikloan egin beharko dute Practicum III. Practicum III egin ondoren, batzordeak egiaztatuko balu ikasleak ez dituela baldintza horiek bete, ikasleak AURKEZTEKE kalifikazioa izango du Practicum III irakasgaian.
- **Gorputz Hezkuntzako minorreko ikasleek Gorputz Hezkuntzan egin beharko dute Practicum III (Lehen Hezkuntzan),** espezialista den maisu edo maistra tutore batekin.
- Practicumeko ikasle bakoitzari plaza bat esleituko zaio Haur Hezkuntzako edo Lehen Hezkuntzako ikastetxe batean, eta tutore bat Fakultatean eta beste bat ikastetxean (ikusitako gida honetako 3. eta 4. atalak).
- Praktiketako egonaldiaren aurretik, 3-4 orduko DERRIGORREZKO prestakuntza egingo du ikasleak. Era berean, Hezkuntza eta Kirol Fakultateko tutoreak antolatutako eta egutegian zehaztutako bi orduko jarraipen mintegietara joatea ere DERRIGORREZKOA izango da. Saiotara EZ JOATEAK eragina izango du AZKENEKO NOTAN.
- NAHITAEZKOA da praktiketara joatea. Falta guztiak ziurtagiri batez justifikatu beharko dira, eta jakinarazi beharko zaizkie bai ikastetxeari eta bai Hezkuntza eta Kirol Fakultateko tutoreari.
- Justifikatuak izan arren, faltak bi egun osotik gorakoak baldin badira —edo lau egun erditik gorakoak (goiz edo arratsalde)—, errekuaratu egin beharko dira. Justifikaziorik gabe bi egun osotik gorako faltak edo lau egun erditik gorako faltak (goiz edo arratsalde) izanez gero, ikasleak SUSPENTSO automatikoa izango du praktikan.
- Ezinbestekoa da practicum bakoitzeko 150, 210 eta 300 orduak egitea irakasgaia burututzat jotzeko. Horregatik, adierazitako epean ikastetxeko tutoreak ematen ez badu ezarritako kopurua, ikasleak beste maisu edo maistra batekin egin beharko ditu falta zaizkion orduak.
- Practicumaren amaieran, ikasleak memoria indibidual bat aurkeztu beharko du, praktiken esperientzia islatzen duena. Hezkuntza eta Kirol Fakultateko Practicumeko irakasleen ardura izango da ikasleari lan horrek izan beharreko edukiaren berri ematea. Memoria hori GAURera igo beharko da PDF formatuan eta egutegian adierazitako egunean, eta unibertsitateko

tutoreari bidali beharko zaio posta elektronikoaren bitartez. Memoriaren egiturari eta formatuari buruzko arauak gidaren 6. atalean zehazten dira.

- Memoria ez balitz egun horretan jasoko, ikasleak AURKEZTEKE kalifikazioa izango luke deialdi horretan.
- Ezinbestekoa da adierazitako baldintzak errespetatzea (egutegia, ordutegia eta bestelakoak). ALDAKETARIK EGIN NAHI IZANEZ GERO, ESKABIDEA ONLINE EGIN BEHARKO DA, FAKULTATEKO WEB ORRIAN ZEHAZTUTAKO ATALEAN ETA PRACTICUM ETA GRAL BATZORDEAK ONARTU EGIN BEHARKO DU.

Oharra: araudia urratuz gero, ikaslearen erantzukizuna izango da. Ez da onartuko ikaslearen eta Hezkuntza eta Kirol Fakultateko tutorearen edo ikaslearen eta praktiketako ikastetxearen arteko inolako akordiorik.

3. PROZESUAN PARTE HARTZEN DUTEN ERAGILEAK ETA BAKOITZAREN EGITEKOAK

Hauek dira Practicumaren prozesuan parte hartzen duten eragileak: Hezkuntza eta Kirol Fakultatea, fakultateko tutorea, Haur Hezkuntzako edo Lehen Hezkuntzako ikastetxea, ikastetxeko tutorea eta praktiketako ikaslea.

3.1. Hezkuntza eta Kirol Fakultatea

Practicum Dekanordetza arduratuko da, bertako administrazio eta zerbitzuetako langileekin batera, Practicuma antolatzeaz. Prozesuaren hasieran, ikasleentzako informazio bilera bat egingo da. Bertan, plaza ziurtatzeko egin beharrekoak eta kreditu horiek egiteko ezinbestekoak diren gainerako baldintza guztiak azalduko dira. Era berean, fakultateak kudeatuko ditu Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailarekin, ikastetxeekin, unibertsitateko irakasle tutoreekin eta ikastetxeetako maisu-maistra tutoreekin izan beharreko harremanak.

Fakultateko Practicum eta GRAL Batzordeak baliozkotuko du prozedura osoa, eta esku hartuko du behar den guztietan.

- Practicum Dekanordetza: 1-5 bulegoa.

- Telefonoak: 945 01 32 79, 945 01 34 02.
- Helbide elektronikoa: ga-eum.practicum.dekanordea@ehu.eus

3.2. Hezkuntza eta Kirol Fakultateko tutorea

Hezkuntza eta Kirol Fakultateko tutorearen egitekoak:

- Haur Hezkuntzako Gradu edo Lehen Hezkuntzako Gradu talde bat bere ardurapean hartzea eta hari enborreko irakasgai honen irakaskuntza ematea, egutegian ezarritako aurre prestakuntza eta jarraipen mintegiak bere gain hartuz.
- Practicum dekanordeak eta titulazioaren koordinatzaileak deia egindako bileretara joatea.
- Ikasleari Practicumaren programa ematea.
- Bermatzea ikasleek konfidentzialtasun konpromisoa entregatuko dutela, sinatuta, ikastetxean.
- Ikasleei orientazioa ematea teoriaren eta praktikaren arteko lotura egin dezaten praktikaldian.
- Praktiketako ikasleei arreta eta laguntza ematea, ikastetxean egingo duten lana gidatuz eta beharrezko orientazioak emanaz.
- Planteamendu teorikoak eta ikasgelako aplikazio praktikoak uztartzen saiatzea, horretarako ikastetxeko tutorearekin lankidetzan estuan arituz.
- Ikastetxeetako zuzendariekin edo koordinatzaileekin eta ikasleen tutoreekin harremanetan egotea. Ahal duen neurrian, praktiketako ikastetxeetara bisita egitea.
- Beharrezkoa balitz, ikasleekin bilerak egitea, praktikan zehar arazorik eta gorabeherarik gertatuz gero, banaka edo taldean konpontzeko.
- Ebaluazio agiriak ikastetxeko tutoreei bidaltzea, eta, haiek behin betez gero, jasotzea.
- Ikasleak gidatzea praktiken memoria egiteko, eta memoria hori ebaluatzea eta kalifikatzea, horretarako ezarritako irizpideen arabera.
- Praktikaldia kalifikatzea, ikasleak egindako lanak, ikastetxeko tutoreen ebaluazioa eta ikastetxeetara egindako bisitetan hartutako oharra kontuan izanik.
- Practicuma hobetzeko iradokizunak eta ekarpenak egitea.

3.3. Haur Hezkuntzako edo Lehen Hezkuntzako ikastetxea

Abiapuntua izango da Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak gure fakultatearen esku jarritako PRAKTIKETAKO PLAZEN ESKAINTZA.

Ikastetxeen borondatezko lankidetzak izango dugula jakinik, ezinbestekoa da erabateko errespetuaz jokatzeko ikastetxearekin eta bertako langileekin, hala plazen izapideak egitean nola ikaslearen egonaldian.

3.4. Haur Hezkuntzako edo Lehen Hezkuntzako ikastetxeko tutorea

Maisu-maistra tutoreen egitekoak:

- Fakultateko praktiken koordinatzailearekin eta unibertsitatean praktiken ardura dutenekin elkarlanean aritzea, bi erakundeen arteko lana koordinatzeko, eta bermatzea praktiketako ikasleei behar bezalako harrera egingo zaiela ikasturtean zehar egiten dituzten praktikaldietan.
- Ikasleen autonomia eta erantzukizun zentzua bultzatzea Practicumean egin behar dituzten zereginetan.
- Hezkuntza berritzailea eta irakasleen erantzukizuna eta konpromisoa babestuko dituen kultura profesional bat sustatzea hezkuntza ingurunean.
- Praktiken plan orokorraren barruan, ikasleentzako prestakuntza ekintza espezifikoak proposatzea.
- Ikasgelako praktiketan ikasle bakoitzaren ondoan egotea eta hari laguntzea, ataza bakoitzean izan beharko duen autonomia erabakiz.
- Ikastetxearen baliabideak praktiketako ikaslearen esku jartzea, bereziki arloko programazioak edo didaktika saileko materiala, ikasleak presta ditzan bere gain uzten diren jarduerak hezigarriak.
- Praktiken prestakuntza prozesua ebaluatzea, ikasleari bere jardunaren ahulgune eta indarguneak jakinaraziz, betiere hobetze aldera.
- Amaierako txostena egitea, praktiketako ikasleak lortutako gaitasunak ebaluatzeko, tituluaren memoria egiaztatua eta onartutako ebaluazio ereduaren arabera.
- Ikasleren batekin familia loturaren bat daukaten maisu-maistrak ezin izango dira ikasle horren tutoreak izan.

3.5. Practicumeko ikasleak

Ikasleek eskubide hauek izango dituzte ikastetxean praktikak egiten ari diren bitartean:

- Informazioa eskuratzeko, ebaluaziorako eta praktikak egiteko behar dituzten baliabideak izateko.
- Ikastetxean esleitu zaien tutoreak beren lana gainbegiratzeko.
- Ebaluatuak izateko unibertsitateak ezarritako irizpideen arabera.
- Sexuagatik bereizkeriarik ez jasateko eta bere dibertsitatean begirunez tratatuak izateko.

Era berean, honako hauek izango dira ikasleen betebeharrak:

- Unibertsitateak praktiken inguruan ezarritako arauak betetzea.
- Practicumaren faseak ezagutzea eta haietan parte hartzea (informazio bilerak, plazaren hautaketa, aurretiko prestakuntza, jarraipen mintegiak, memoria entregatzea) eta faseok betetzen laguntzea.
- Praktiken prestakuntza proiektua eta haren baitan adostutako jarduerak ezagutzea eta betetzea, ikastetxeko tutorearen argibideei jarraituz eta unibertsitateko tutoreak gainbegiratuta.
- Adostutako datan ikastetxean praktikaldia hastea, prestakuntza proiektuan ezarritako ordutegia betetzea eta ikastetxeko funtzionamendu eta antolaketa arauak errespetatzea.
- **Konfidentzialtasun konpromisoa** sinatzea, ikastetxeko praktiken arduradunari ematea eta gero memoriari eranstea.
- Ikastetxearen barne informazioa isilpean gordetzea, bai praktikek irauten duten bitartean, baita ondoren ere.
- Une oro errespetuz jokatzeko ikastetxearekin, bertako langileekin, ikasleekin eta beren familiekin.
- Bi tutoreekin lankidetzan aritzea: bai ikastetxekoarekin eta bai Hezkuntza eta Kirol Fakultateko Practicumekoarekin.
- Esleitutako plazari uko eginez gero, Practicum Dekanordetzari horren berri ematea.

4. PLAZEN ESLEIPENA

Practicumeko plazen esleipenaren prozedurari buruzko argibide orokorrak:

- Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak Practicumerako esleitutako plazen eskaintza jaso ondoren, Hezkuntza eta Kirol Fakultateko Practicum Dekanordetzak argitaratu egingo du, ikasleek haren berri izan dezaten.
- Ikasleek ikastetxea eta plaza aukeratu beharko dituzte, zehaztutako prozedurari jarraituta (ikus gida honetako 4.1 eta 4.2 atalak).
- UPV/EHUko ikasleek Gizarte Segurantzaren kotizatuko dute praktikan dauden bitartean. Horretarako, Gizarte Segurantzak ikasleak praktikan emandako egunak hartuko ditu aintzat.
- Ikasle batek kontratu pedagogikoa badauka eskola batekin, ezin izango ditu praktikak bertan egin.
- Esleitutako plazari uko egingez gero, ikasleek horren berri eman beharko diote Practicum Dekanordetzari.
- Plazaren esleipena ezin da aldatu.
- Derrigorrezkoa da **delitu sexualik egin ez izanaren ziurtagiria** aurkeztea edo unibertsitateari baimena ematea matrikula prozesuan egiaztatzeko ikasleak halakorik ez duela egin.

4.1. Ikasleak ikastetxea eta plaza aukeratzea: PRACTICUMA I

- Practicuma I Arabako lurralde historikoan egingo da.
- Ikasleek automatrikula prozesuan eta espediente akademikoaren arabera hautatuko dute praktikak egiteko ikastetxea.
- Prozesu hori amaituta, ikasleek GAUREn ikusi ahal izango dute hautatu duten eta esleitu zaien plaza.
- Praktikaldia hasi baino lehen, GAUREn ikusi ahal izango dute nor izango duten tutore Hezkuntza eta Kirol Fakultatean.

4.2. Ikasleak ikastegia eta plaza aukeratzea: PRACTICUMA II eta PRACTICUMA III

- Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako lurralde historikoetan egin daitezke, bai eta Nafarroan ere.

- Ikasleek automatrikula prozesuan eta espediente akademikoaren arabera hautatuko dute praktikak egiteko ikastetxea.
- Gorputz Hezkuntzako minorreko ikasleek profesional espezialista batekin egin beharko dituzte praktikak, eta dagokion laukia markatu beharko dute matrikula egitean.
- Nafarroako Foru Komunitatean praktikak egin nahi dituzten ikasleek (bertan erroldatuek soilik) nahi duten ikastetxera eraman beharko dute AUTOPRACTICUM inprimakia, bertan bete, sina eta zigila dezaten. Gero, inprimakia 1.5 bulegora eraman beharko dute edo posta elektronikoz bidali ga-eum.practicum.dekanordea@ehu.eus helbidera (gure webgunean argitaratutako praktiken egutegian ezarritako epearen barruan).

5. PRAKTIKEN PLANA

Atal honen azpiataletan zehaztuko den moduan, practicum bakoitzean lortu beharreko helburuak eta landu beharreko gaitasunak desberdinak dira. Ondorioz, jarraipen mintegien edukiak Practicumaren arabera aldatuko dira, ikastetxean behatutakoak eta bizitakoak modu antolatuan eta koherentean aurkeztea baita haien xedea. Era berean, praktikaldia amaitutakoan aurkeztu beharreko memorian kasu bakoitzaren helburuen araberrako behaketak, azterketak eta gogoetak jaso behar dira.

5.1. Practicuma I

5.1.1. Helburuak

Practicuma I-en funtsezko helburua da ikasleek ikastetxearekin lehen harremana egitea, behaketa orokor bat egitea eta Hezkuntza eta Kirol Fakultatean eskuratutako ezagutzak ikasgelara eramatea eta ikasgelaren dibertsitateari, eskolari eta haren inguruneari egokitzea, aparteko arreta emanaz generoaren tratamenduari. Garrantzitsua da ikasleek behaketarako, informazioa biltzeko eta hura aztertu eta interpretatzeko moduak eta teknikak ezagutzea, eta beti jarrera positiboa izatea eta lankidetzarako, talde lanerako eta kideekin ondo moldatzeko gertu egotea.

Hona hemen, zehatzago, Practicuma I-en helburuak:

Ikastetxea eta haren ingurunea

- Irakasle lanbidea ezagutuz joatea.
- Lehen urratsak egitea eskolako errealitatea behatzen.
- Ikastetxearen antolamenduaren egitura ezagutzea: zuzendaritza, batzorde pedagogikoa, koordinazio mailak...
- Ikastegiaren proiektuak ezagutzea: hezkuntza proiektua, curriculum proiektua, hizkuntza proiektua...
- Ikastetxearekin elkarreraginean dauden zerbitzuak ezagutzea: berritzegunea, sostengurako baliabide teknikoak eta giza baliabideak...
- Ikastetxearen ingurune soziokulturala, linguistikoa eta ekonomikoa ezagutzea.
- Ikastetxearen ingurunearen instalazioak eta zerbitzuak eta haien erabilera maila ezagutzea.
- Familiek ikastetxearekin daukaten inplikazio mailaz informazioa biltzea.
- Jarrera arduratsua eta gogotsua izatea, eta pixkanaka hezitzailearen erantzukizunak bere gain hartuz joatea.

Ikasgela

- Zuzeneko behaketa teknikaren garrantzia ezagutzea.
- Ikasgelan/taldean informazioa biltzeko tresnak ezagutzea.
- Informazioa aztertzen eta interpretatzen jakitea.
- Eskuratutako ezagutza teorikoak ikastetxearen eta taldearen/ikasgelaren errealitatearekin harremanetan jartzea.
- Dibertsitatearen faktore desberdinak ezagutzea: generoa, kulturartekotasuna...
- Taldearen/ikasgelaren aldagaien arteko dinamika eta elkarreragina behatzea.
- Taldea ezagutzea eta hari egokitzea, eta ikasleen ezaugarriez jabetuz joatea.
- Taldean/ikasgelan denbora eta espazioa nola antolatzen diren aztertzea.
- Ikasgelan garatutako estrategia metodologikoak behatzea eta ezagutzea.
- Ikasleek zeregin desberdinetan erakutsitako gaitasunak eta aurkitutako zailtasunak identifikatzea eta aztertzea.

5.1.2 Gaitasunak

- Ikasgelaren eta haren kudeaketaren ezagutza praktikoa hartzea.
- Ikasgelako interakzio eta komunikazio prozesuak behatzea, giro ona sortzeko.
- Irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren aldagai nagusiak identifikatzea.

5.2. Practicuma II

5.2.1. Helburuak

Practicuma II-ren helburu nagusia da irakasle tutorearen eginkizuna eta hezkuntza jarduna aztertzea eta haietaz hausnarketa egitea, eta esku hartze didaktiko bat diseinatzea.

Hona hemen, zehatzago, Practicum II-aren helburuak:

Ikasgelan behatutako jardunaren analisia

- Ikasgelako irakaskuntza eta ikaskuntza egoerak deskribatzea, interpretatzea eta baloratzea.
 - Klasearen antolaera (espazioa, denbora sekuentzia, materialak).
 - Multzoak eta harremanak.
 - Kudeaketarako eta parte hartzeko arauak.
 - Jarduera motak.
 - Behatze eta ebaluatze sistemak.
 - Gorabehera kritikoak.
- Ikasgelako gizarte antolamendua eta ikaskuntza prozesuak aztertzea
 - Taldearen kohesioa eta giroa.
 - Ikasleen ezaugarriak.
 - Irakaslearen espektatibak.
 - Irakaslearen rola taldearen bizitzan.
 - Ikasleen motibazioa.
 - Gorabehera kritikoak.
- Bizikidetzaz aztertzea, gatazkak konpontzeko estrategiak proposatzea
 - Gaitasun sozialak eta gatazken konponketa.
 - Diskriminazio egoerak eta haien aurrean zelan jokatu (jokabide protokoloak eta programak)

- Gorabehera kritikoak.
- Dibertsitatearekiko arreta aztertzea
 - Ikaskuntzarako oztopoak identifikatzea.
 - Ikasteko erritmo desberdinetara egokitzea: metodologiak eta ebaluazioa.
 - Gorabehera kritikoak.
- Ikasteko komunikazio eta interakzio prozesuak aztertzea
 - Irakasleak proposatutako ataza, jarduera eta eztabaida motak.
 - Atazen edukia.
 - Edukiak eta prozedurak elkarrizketaren bidez irakastea.
 - Irakaslearen galderak eta haien eginkizunak.
 - Erabilitako laburbiltze, birformulatze eta errepikatze teknikak. Irakasleak haiek erabiltzen dituen testuinguruak.
 - Zelako garrantzia ematen zaion haurren arrazoitzeari, hala ekintza testuinguruetan nola errepresentazio testuinguruetan, eta haien pentsamendua taldeko interakzioen bidez garatzeari (ideien berri ematea, arrazoiak ematea, zergatiak galdetzea, iritziak zalantzan jartzea, hausnartzea, akordioetara iristea, denek parte har dezaten eta denek beren erantzukizuna har dezaten lortzea...).
 - Ikasleekin askotariko hizkerak erabiltzearen garrantzia, arrazoinamenduaren eta esperientziaren berri emateko (aberasteko, eboluzionarazteko, kontatzeko, azaltzeko edo argudiatzeko).

5.2.2 Gaitasunak

- Ikasgelako interakzio eta komunikazio prozesuak ezagutu eta aplikatzea, eta elkarbizitza sustatzen dituzten gaitasun eta trebetasun sozialen jabe izatea.
- Komunikaziorako eta adierazpenerako trebetasunak hobeto erabiltzen jakitea ikasgelan eta ikasgelatik kanpo, bi hizkuntza ofizialetan.
- Hezkuntza prozesua kontrolatzea eta haren segimendua egitea, eta, bereziki, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuarena, horretarako behar diren teknika eta estrategien jabe izanik.
- Teoria eta praktika ikasgelaren eta ikastetxearen errealitatearekin lotzea.
- Irakaslanean parte hartzea eta egiten jakiten ikastea, praktikatik abiatuta eta praktikaz hausnarketa eginez.

5.3. Practicuma III

5.3.1. Helburuak

Practicuma III-ren helburu nagusia da ikasleek jarraitzea garatzen beren gaitasuna proiektu didaktikoak eta hezkuntza programak (berrikuntzakoak, lankidetzakoak, esku hartzekoak...) diseinatzeko, praktikan jartzeko eta ebaluatzeko, oinarri hartuta aurreko practicumetan egindako lana eta ikastetxearen ezagutza.

Hona hemen, zehatzago, Practicum III-aren helburuak:

- Irakaskuntza-ikaskuntza prozesua kritikoki ebaluatzea. Practicum I eta II modu autokritikoan oroitzea, sortutako dokumentuen bidez.
 - Ikastetxearen eta haren testuinguru soziokulturalaren arteko harremana eta lankidetzak. Proiektu eta programa motak. Bere alderdien azterketa.
 - Umeei, tutoreari eta beste irakasleei harremana eta komunikazioa.
 - Irakaskuntzaren plangintzari eta antolakuntzari lotutako alderdiak.
 - Taldearen/ikasgelaren esperimentazioa eta kudeaketa.
 - Esku hartze proposamenaren irizpide pedagogiko eta didaktikoak.
- Esku hartzearen eremua aztertzea
 - 2.1. Arazoa aztertzea eta definitzea.
 - Aurrekariak
 - Esparru instituzionala.
 - 2.2. Erreferentzia esparru teorikoa.
 - 2.3. Esku hartzeko estrategiak.
- Proposamena diseinatzeko, praktikan jartzea eta ebaluatzea
 - Prozesua zehaztea: proiektuaren edo programaren faseak.
 - Esku-hartzea diseinatzeko.
 - Esku hartzerako proposamena praktikan jartzea.
 - Esperientzia sistematikoki erregistratzea.
 - Prozesuak eta emaitzak aztertzea.
 - Hobetzeko proposamenak.
- Practicum IIIari buruzko hausnarketa eta balorazioa. Memoria egitea eta aurkeztea.

5.3.2 Gaitasunak

- Ikastetxe baten jardun eremu desberdinetan proposa daitezkeen hobekuntzetan parte hartzea.
- 0 eta 6 eta 6 eta 12 urte bitarteko ikasle taldeen interakzio eta komunikazio prozesuak arautzea.
- Hezkuntza erkidegoko eta gizarte inguruneko sektoreekin elkarlanean aritzeko moduak ezagutzea.
- Praktikatik abiatuta hausnarketa egitea, irakastean aurkitzen diren gabeziak eta indarguneak identifikatzeko eta eskolaren eta hezkuntza sistemaren erronkak eta mugak ezagutzeko.

6. MEMORIA

Praktiken memoria testu **akademiko** bat da, behar bezala **prestatu, idatzi eta aurkeztu** behar dena. Baldintza batzuk bete behar dira edukia antolatzeko eta lanari oinarria ematen dioten lanen **aipu bibliografikoak** egiteko.

Memoriaren helburua ez da zehatz-mehatz kopiatzea eta deskribatzea eskolako egonaldian aurkitutako dokumentazio guztia eta bertan bizi izandako egoera guztiak. Aitzitik, ikasleek eskolako funtzionamendua **analizatu** behar dute eta behatutakoen **sinthesia** egin, jasotako informaziotik abiatuta **gogoeta pertsonal** bat egiteko.

Ezinbestekoa da ikasleak informazioa biltzea hezkuntza komunitatearen ezaugarri sozial eta kulturez, eskolaren antolamenduaz eta haren hezkuntza proiektuaz. Kontuan izan behar du lan, proposamen eta esku hartze didaktiko oro koherentziaz arrazoitu eta justifikatu behar dela.

Nahiz eta practicum bakoitzean eduki desberdinak landu behar diren, aurreko kapituluari adierazi lez, badira puntu batzuk memoria guztietan bete behar direnak.

Ikasleak ez du ahaztu behar alderdi akademiko eta formalak ebaluatuko direla: besteak beste, aurkezpena, ortografia, idatzizko adierazpena, koherentzia eta erreferentzia bibliografikoak.

6.1. Memoriaren atalak

Atal hauek ezin dira inoiz falta praktiken memoria batean:

1. **Azala:** Hezkuntza eta Kirol Fakultatearen logotipoa; Practicum I, II edo III; espezialitatea; ikaslearen izen-abizenak; ikastetxearen izena; ikasturtea; eta Hezkuntza eta Kirol Fakultateko tutorearen izen-abizenak.
2. **Aurkibidea:** zenbakituta.
3. **Ikasleak sinatutako konfidentzialtasun konpromisoa** (web gunean).
4. **Sarrera:** ondorengo kapituluetan azalduko dena aipatuko da, lana bere konplexutasunean uler dadin. Atal egokia da ikastetxea "berezi" egiten duten ezaugarriak aipatzeko, eta ikasleak egindako esku hartzerako edo hautatutako sekuentzia didaktikorako motibazioa azaltzeko (hala badagokio), edo praktikaldian aurkitutako erraztasunen edo eragozpenen berri emateko.
5. **Ikastetxea eta eskola komunitatea:** atal honetan ikasleak hizpide izango ditu eskolan aurkitutako errealitate desberdinak, ingurunearen ezaugarriak, dibertsitatea eta koloreak, familien parte hartzea eta eskolaz kanpokoak, hezkuntza ildoak, espazioaren eta denboraren antolaketa, baliabideak, berrikuntza proiektuak, irakasleen jarrera ("gogo" edo "gogo falta"...) etab.
6. **Irakasle praktikak:** ikaslea egiten ari den Practicumaren arabera, berba egingo du unibertsitateko eta ikastetxeko tutoreen onespenearekin egin dituen behaketez, saioez, esku hartzez eta sekuentzia didaktikoez.
7. **Ondorioak eta hausnarketa pertsonala:** atal honetan ikasleak praktiken esperientzia analizatuko du. Bizi izandako egoera "zailak" aurkeztu eta azpimarratu behar ditu, maisu-maistren zereginen inguruko galderak egiteko eta etorkizunean hobetu daitezkeen alderdiak antzemateko. Era berean, atal honetan baloratu beharko ditu hezkuntza praktikaren indarguneak eta ahuleziak eta Hezkuntza eta Kirol Fakultatean egindako lana.
8. **Bibliografia:** APAren estilo arauen arabera (7. edizioa).
9. **Eranskinak:** praktiken egunerokoa (derrigorrezkoa Practicum I-erako, eta gomendatua Practicum II eta III-rako) eta memoria hobeto ulertzeko lagungarri izan daitezkeen dokumentu, material, grafiko, argazki eta marrazki guztiak.

6.2. Memoriaren formatua

- Times New Roman edo Arial letra tipoa, 12 puntukoa, 1,5eko lerro tartearekin.
- Marjinak: ezker -eskuin, 3 cm. Goialdean eta behealdean, 2,5 cm.
- Orrialdeak zenbakituta.
- Derrigorrezkoa da erabilitako iturri guztiak aipatzea.
- Ez da hitzez hitzeko aipamen gehiegi egin behar. Beti da hobe parafraseatzea. Ez da egokia, adibidez, Hezkuntzako Legearen testuak bere horretan kopiatzea, aztertzen ari den gaiaren premietara egokitu beharrean.
- Zuzentasunez eta zehaztasunez idatzi, hizkera akademikoa, inklusiboa eta ez-sexista erabili. Ez erabili sekula hizkera zakarrik edo lagunartekorik
- Ez da erabili behar jendea edo lekuak identifikatzeko bidea eman dezakeen daturik. Asmatutako izenak edo inizialak erabili.
- Irudirik erabiltzekotan, egile eskubideak hartu beharko dira kontuan, erabilera lizentziak errespetatuko dira eta iturria aipatu behar da.
- DEBEKATUTA DAGO umeen argazkiak edo grabazioak txertatzea memorian.

6.3. Memoriaren luzera

- Practicum I: Azala+aurkibidea+ikasleak sinatutako konfidentzialtasun konpromisoa+10-15 orrialde+eranskinak.
- Practicum II: azala + aurkibidea + ikasleak sinatutako konfidentzialtasun konpromisoa + 14-21 orrialde + eranskinak.
- Practicum III: azala + aurkibidea + ikasleak sinatutako konfidentzialtasun konpromisoa + 20-30 orrialde + eranskinak.

6.4. Memoria gaitzatzeko ezinbesteko baldintzak

- Plagiorik ez egitea eta adimen artifizialik ez erabiltzea. Ezin dira beste batzuen ideiak kopiatu eta norberarenak balira moduan aurkeztu. Beti aipatu behar da autorea.
- Bost akats gramatikal edo ortografiko baino gehiago ez egitea.
- Ikastetxeko umeen edo irakasleen argazkiak ez jartzea.

6.5. Memoriaren entrega

- Praktiketako memoria **posta elektronikoz bidali beharko zaio tutoreari PDF formatuan, eta, horretaz gain, GAUR plataformara igo beharko da.**
- Tutorearen helbide elektronikora bidali beharko da (lan original osoa, argazki eta irudiekin).
- GAUR plataformara igotzeko, ikasle bezala sartu praktiken atalean eta "adjudikazioak" ataletik igo. **Ezin da igo 5 MB** baino gehiago pisatzen duen dokumenturik (beharrezkoa balitz, kendu argazki eta irudiak).
- Lana esandako moduan entregatzen ez bada, AURKEZTEKE kalifikazioa jarriko zaio ikasleari.

7. EBALUAZIOA

Praktiken kalifikazioak bi nota bilduko ditu: Haur Hezkuntzako edo Lehen Hezkuntzako ikastetxeko tutorearena eta Hezkuntza eta Kirol Fakultateko tutorearena, banaketa honen arabera:

Ebaluazio irizpideak		%
Maisu/maistra tutorearen balorazioa.		% 30
Hezkuntza eta Kirol Fakultateko tutorearen balorazioa	Ikasleak egindako lana aurretiko prestakuntzan eta mintegietan.	% 30
	Memoria	% 40

Honako hauek eragina izango dute azken notan:

- Prestakuntza ikastarora EZ JOATEAGATIK 3 PUNTU jaitsiko da azken nota.
- Jarraipen mintegietara EZ JOATEGATIK azken nota PUNTU 1 jaitsiko da hutsegite bakoitzagatik.

- Prestakuntzara eta mintegietara ez joate partzialetan, falta kopuruaren proportzioan jaitsiko da azken nota.
- ZATIREN BAT GAINDITZEN EZ BADU, ikasleak GUTXIEGI kalifikazioa jasoko du azken notan, eta, kasuaren arabera, hau egin beharko du:

ZEIN ATALETAN JASO DUEN "GUTXIEGI" EDO "AURKEZTEKE" BALORAZIOA	Egin beharrekoa
Memoria, lehenengo deialdian	Beste memoria bat egin, bigarren deialdian.
Memoria, bigarren deialdian	Berriro matrikulatu irakasgaian eta berriz egin praktikak, aurretiko prestakuntza, jarraipen mintegiak, ikastetxeko egonaldia eta memoria.
Aurretiko prestakuntzan eta jarraipen mintegietan egindako lana.	
Ikastetxeko tutorearen balorazioa.	
Justifikatu gabe ez agertzea bi egun osotan edo lau egun erditan, goizez edo arratsaldez.	

- Praktikek (aurretiko prestakuntzak, ikastetxeko egonaldiak, jarraipen mintegiei, ikastetxeko tutorearen balorazioak eta memoriak) egiten diren ikasturtean baino ez dute izango balioa.

Oharra: Ikastetxeko egonaldiak egiten den ikasturtean baino ez du izango balioa. Memoria gainditu ezean edo behar den datan aurkeztu ezean, ikasleak berriro egin beharko du ikastetxeko egonaldia.

8. BALIOZKOTZEAK - AITORPENAK

AITORPEN ETA BALIOZKOTZE TAULA			
EGINDAKO TITULAZIOA	LORTU NAHI DEN TITULAZIOA	AITORTUTAKOAK	EGIN BEHARREKOAK
Lehen Hezkuntzako Gradua	Haur Hezkuntzako Gradua	Practicuma I eta II	Practicuma III
Haur Hezkuntzako Diplomatura edo Maisu/maistra Titulua, Haur Hezkuntzako espezialitatea (1440/1991 ED)	Haur Hezkuntzako Gradua	Practicuma I eta II	Practicuma III (Egonaldia baliozkotu ahal izango zaie Haur Hezkuntzan 9 hilabeteko esperientzia dutenei)
Lehen Hezkuntzako Diplomatura edo Maisu/maistra Titulua, Lehen Hezkuntzako espezialitatea (1440/1991 ED)	Haur Hezkuntzako Gradua	Practicuma I eta II	Practicuma III
Haur Hezkuntzako goi mailako teknikaria	Haur Hezkuntzako Gradua	Practicuma I eta II	Practicuma III (Haur Hezkuntzako bigarren zikloan)
Haur Hezkuntzako Gradua	Lehen Hezkuntzako Gradua	Practicuma I eta II	Practicuma III
Lehen Hezkuntzako Diplomatura edo Maisu/maistra Titulua, Lehen Hezkuntzako espezialitatea (1440/1991 ED)	Lehen Hezkuntzako Gradua	Practicuma I eta II	Practicuma III (Egonaldia baliozkotu ahal izango zaie LHn 9 hilabeteko esperientzia dutenei)
Haur Hezkuntzako diplomatura edo Maisu/maistra titulua, Haur Hezkuntzako espezialitatea (1440/1991 ED)	Lehen Hezkuntzako Gradua	Practicuma I eta II	Practicuma III